

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko apirilaren 20tik 26rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/21

- **OGASUN MINISTERIOA.- Zerga prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2020ko apirilaren 15ekoa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, 2020ko martxoaren 11ko ebazpena aldatzen duena. Ebazpen hori, kreditu- eta zordunketa-txartelekin zorrak ordaintzean, zergadunei eta herritarrei erakunde laguntzaileen aurrean identifikazio telematikoa egiten laguntzeari buruzkoa da, aurretiazko erregistro batean sartzeko gakoa duen sinadura ez-aurreratuaren sistemaren bidez (CI@VE PIN sistema). [2020-4538 xedapena - 2 orri.](#)
- **BARNE MINISTERIOA.- Alarma egoera. Mugak.-** INT/356/2020 Agindua, apirilaren 20koa, luzatu egiten dituen hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen eremuko herrialdeetara ezinbestekoak ez diren bidaiak aldi baterako mugatzeko aplikatu beharreko irizpideak, COVID-19ak eragindako osasun krisia tarteko, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiak direla-eta. [2020-4539 xedapena - 3 orri.](#)

2020/04/22

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** 15/2020 Errege Lege-dekretua, apirilaren 21ekoa, ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzkoa. [2020-4554 xedatasuna- 59 orri.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.- Landare osasuna.** 491/2020 Errege Dekretua, apirilaren 21ekoa, *Trioza erythrae* kontrolatzeko eta errotik kentzeko programa nazionala eta *Diaphorina citri* eta *Candidatus Liberibacter spp.* prebenitzeko programa nazionala ezartzen dituen urtarilaren 22ko 23/2016 Errege Dekretua aldatzen duena. [2020-4555 xedatasuna - 10 orri.](#)

2020/04/23

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Abiazio zibila.-** TMA/360/2020 Agindua, apirilaren 22koa, salbuespenak ezartzen dituen abiazio zibileko arautegi nazionalako zenbait esparrutan, COVID-19 gaitzak (koronabirusa) eragindako krisi globalarekin lotuta. [2020-4573 xedapena - 4 orri.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Etxebizitza. Maileguak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 7koa, Garraioaren, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko martxoaren 31ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia. Erabaki horren bidez, berraztertu eta aldatu egiten dira indarrean dauden urteko interes tipo efektiboak mailegu kualifikatu edo hitzartuetarako, 1996-1999 Etxebizitza Planaren 1996 Programaren, 1998-2001 Etxebizitza Planaren eta 2005-2008 planaren testuinguruan. [2020-4574 xedapena - 5 orri.](#)
- **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Irakaskuntza akademikoak.-** EFP/361/2020 Agindua, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez ezohiko neurriak hartzen diren malgutasunari dagokionez Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketako eta Erregimen Bereziko irakaskuntzetan.- [2020-4575 xedapena - 5 orri.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Batxilergoa.-** PCM/362/2020 Agindua, apirilaren 22koa, otsailaren 17ko PCM/139/2020 Agindua aldatzen duena. Agindu horrek Batxilergoko ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia zehazten ditu unibertsitatean sartzeko, bai eta 2019-2020 ikasturtean lortutako kalifikazioak berrikusteko prozedurak egiteko eta ebazteko gehieneko datak ere. [2020-4576 xedapena - 3 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 22koa, Osasun Sistema Nazionaleko eta Farmaziako Zerbitzuen Sail Komunaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko apirilaren 21eko Ministerio Barruko Batzordearen Medikamentuen Prezioei buruzko Akordioa. Horren bidez, jendeari halakoak saltzeko gehienezko prezioak ezartzen dira, apirilaren 19ko SND/354/2020 Aginduan ezarritakoa betez. Agindu horren bidez, ezohiko neurriak hartzen dira herritarrei sarbidea bermatzeko COVID-19aren kutsatzeak prebenitzeko higie-ne neurriak betetzeko gomendatzen diren produktuetara. [2020-4577 xedapena - 2 orri.](#)

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Itsas arrantzako sektorea.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 21ekoa, Itsasoko Gizarte Institutuarena, zenbait neurri egokitzen dituen, COVID-19aren ondorioz, itsas arrantzako sektoreko prestazioei eta berariazko zerbitzuei lotuta. [2020-4578 xedapena - 2 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Administrazio epeak. Produktu kosmetikoak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 20koa, Medikamentu eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, produktu kosmetikoen ekoizpen eta inportazioen jardueretan administrazio epeak bertan behera ez uzteari buruzkoa. [2020-4599 xedapena - 2 orri.](#)

2020/04/24

- **GORTE NAGUSIAK.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila nekazaritza enpleguaren alorrean premiazko zenbait neurri hartzeari buruzko apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze-akordioa. [2020-4608 xedapena - 1 orri.](#)
- **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAREN MINISTERIOA. Alarma egoera.** Unibertsitatez kanpoko hezkuntza. EFP/365/2020 Agindua, apirilaren 22koa, 2019-2020 ikasturteko hirugarren hiru hilekorako eta 2020-2021 ikasturtearen hasierarako jarduteko markoa eta jarraibideak zehazten dituen, COVID-19ak eragindako krisi egoeraren aurrean. [2020-4609 xedapena - 17 orri](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Atzerriko merkataritza. Osasun kontrola.-** Ebazpena, 2020ko martxoaren 5koa, Osasun Publikoaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiarena, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren 1994ko urtarrilaren 20ko Aginduaren I. eranskina aldatzen duena. Agindu horren bidez, giza erabilera eta kontsumorako kanpo-merkataritzako produktuen eta horiek egiteko gaitutako aduana-barrutien osasun kontrolerako modalitateak finkatzen dira. [2020-4611 xedapena - 92 orri.](#)

2020/04/25 (115)

- **GORTE NAGUSIAK.- Alarma egoera. Luzapena.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera luzatzea baimentzeko Erabakia argitaratzeko agindua ematen duena. [2020-4648 xedapena - 2 orri.](#)

- **BARNE MINISTERIOA.**

- **Alarma egoera. Mugak.-** INT/368/2020 Agindua, apirilaren 24koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz lurreko barne-mugetan ezarritako kontrolak luzatzen dituen. [2020-4649 xedapena - 2 orri.](#)
- **Alarma egoera. Segurtasun pribatua.-** INT/369/2020 Agindua, apirilaren 24koa, segurtasun-zaindarien etengabeko prestakuntzaren arloan eta segurtasun pribatuko langileen nortasun profesionaleko txartelen indarraldiaren arloan salbuespenezko neurriak hartzen dituen. [2020-4650 xedapena - 2 orri.](#)

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.-Alarma egoera. Osasun materiala.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 23koa, Industriako eta Enpresa Txiki eta Ertainetako Idazkaritza Nagusiarena, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren testuinguruan norbera babesteko ekipamenduei buruzkoa. [2020-4651 xedapena - 5 orri.](#)

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA-**

- **Alarma egoera. Luzapena.-** 492/2020 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera luzatzen duena, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko. [2020-4652 xedapena - 8 orri.](#)
- **Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 7koa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarena, Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan sartutako erakunde, entitate eta enpresen katalogoa argitaratzen duena.- [2020-4662 xedapena - 5 orri.](#)

2020/04/25 (116)

- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** SND/370/2020 Agindua, apirilaren 25ekoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeran haurren joan-etorriak nola garatu behar diren zehazten duten baldintzei buruzkoa. [2020-4665 xedapena - 4 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/04/20

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-**

- AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira nekazaritza-, elikagai- eta arrantza-sektoreei laguntzak emateko aldi baterako araubidearen oinarriak, eta deialdia egiten baita. Laguntza horien xedea ekoizpen- eta merkataritza-jarduerari eustea da, eta Covid-19ak eragindako alarmaren ondoriozko aldi baterako laguntza-esparruaren babesean ematen dira. [1871 xedapena – 14 orri.](#)
- AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez aparteko laguntzak ezartzen baitira, halako moldez non Sendotu programen 2015-2016, 2017-2018 eta 2019-2020 deialdien babesean egindako maileguetako gabezien finantza-kostua murriztuko baita. [1872 xedapena 8 orri.](#)

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, zeinaren bidez jaulkitzen baita laurogeita bat milioi eta bostehun mila euroko Euskadiko zor publikoa eta zehazten baitira eragiketa horren ezaugarriak. [1873 xedapena – 2 orri.](#)

2020/04/21

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 13koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan eman beharreko zerbitzuak egokitzen dituen. [1876 xedapena – 11 orri.](#)

2020/04/22

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituen Covid-19aren inpaktu ekonomikoa erantzuteko. [1888 xedapena – 13 orri.](#)
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zenbateko aurrekontu-zuzkidura dagoen Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren 1. artikuluen a), b) eta d) letretan aurreikusitako jarduerak diruz laguntzeko.- [1889 xedapena - 4 orri.](#)

2020/04/23

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** EBAZPENA, 2020ko apirilaren 7koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan energia eolikoa erabiliz energia elektrikoa sortzeko instalazioak baimentzea arautzen duen Dekretu-proiektua.- [1897 xedapena – 1 orri.](#)
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** EBAZPENA, 2020ko apirilaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2020ko apirilaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. [1898 xedapena – 6 orri.](#)

2020/04/24

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** 48/2020 DEKRETUA, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak. [1901 xedapena – 17 orri.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

22/04/2020

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 21ekoa. Onestea premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak.- [1033 xedatasuna – 2 orri.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** 2/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 21ekoa. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen da.- [2020-76 \(I-286\) xedapena – 6 orri.](#)

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 810/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 21ekoa. Honen bidez, nekazariak eta abeltzainak gasolioa erosteagatik jasan dituzten hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa partzialerako eskaera aurkezteko epea aldatzen da, 2020rako. [2020 - 76 \(I-288\) xedapena - 2 orri.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/04/20

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMoko ETA LANDA INGURUNEko DEPARTAMENTUA.- Akats zuzenketa.** Oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia turismo zerbitzuen sektoreko autonomo eta enpresa txikiei laguntzeko programako dirulaguntzak Covid-19 koronabirusak sortutako gastuei aurre egiteko. [1813 xedapena - 1 or.](#)

2020/04/21

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMoko ETA LANDA INGURUNEko DEPARTAMENTUA.-** 0165 LI /2020 Foru Agindua, apirilaren 17koa, Gipuzkoako lurralde historikoko araubide komunekeo larre aprobetxamendua egiten duten behi aziendako abereak eta horien jatorrizko ustategiek bete behar dituzten osasun baldintzen oinarri arautzaileak garatzen dituenak. [1847 xedapena - 3 or.](#)
- **BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarearen Katalogoa aldatzea. [1825 xedapena - 2 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/04/21

ERABAKIAK

- Batzordearen 2020/549 (EB) Betearazpen Erabakia (EB), 2020ko apirilaren 20koa, zenbait estatu kidetan H5N8 azpimotako patogenotasun handiko hegazti-gripearekin lotutako babes-neurriak buruzko 2020/47 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskina aldatzen duena [C (2020) 2592 zenbakiarekin jakinarazia] (1). [L-123](#)
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/545 (EB) Erabakia, 2020ko apirilaren 17koa, COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan berehalako aurrekontu-neurriak finantzatzeko malgutasun-tresna mobilizatzeari eta Europako Fiskaltza indartzeari buruzkoa. [L 125- 1](#)

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/546 (EB) Erabakia, 2020ko apirilaren 17koa, COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan berehalako aurrekontu-neurriak finantzatzeko malgutasun-tresna mobilizatzeari buruzkoa. [L 125- 3](#)
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/546 (EB) Erabakia, 2020ko apirilaren 17koa, 2020an Ustekabeetarako Marjina mobilizatzeari buruzkoa, estatu kideei premiazko laguntza emateko eta Batasuneko Babes Zibileko Mekanismoa (rescEU) are gehiago indartzeko, COVID-19aren agerraldiari erantzuteko. [L 125 - 5](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO